DEBA




Gaur da azken eguna Itziar Trail lasterketan apuntatzeko. ANDER SALEGI

# Jai giroa espero da Itziarren larunbatetik aurrera

## Gaur azken eguna da Itziar Trail lasterketan izena emateko Kirolprobak webgunean



Kopraixak Marixiren jeitsierarekin hasiko dira. A. SALEGI

ANDER SALEGI

DEBA. Abuztuko lehehengo igandearekin batera iritsi ohi dira Itziarko festak, 1952an Itziarko Ama Birjinaren Koroazio ospakizuna egutegi horrekin burutu zenetik. Hori baino lehen oso aintzinakoa omen da festa honen jatorria, Erdi Aroko ordenantzatan jasotzen den moduan. Garai zaharretan, itsasgizonen kofradiaren urteroko juntadizoa izaten zen, eta hortik datorkie izena Itziarko jaiei.

Gaur egunera etorriz, festa biziberrituak eta sentituak dira Kopraixak. Bost eguneko egitarau oparoan aukera ugari eta edonolako proposamenak izaten dira. Tradizioa eta joera berriak uztartuz, lagun arte parte hartzaile eta herrikoian ospatu ohi dituzte jaiok itziartarrek, giro alaian.

Edonola ere parte hartzea eta auzolana lehenagotik hasi ohi dira, negu amaieran antolaketa batzarrak hasten direnean. Horrela, talde ahaleginaren eta borondatezko jardunaren emaitza eredugarria dira Kopraixak, herriak herriarentzat antolatutako festak.

Aurten, abuztuaren 6,7, 8, 9 eta 10ean egokitu dira Kopraixak. Bost eguneko ospakizun etengabean ez da faltako betiko usadiorik, ez eta ere nobedade eta aldaketarik. Itziarko zezen, erromeria, aurresku, jolas, herri-bazkari, sagardo dastaketa eta danborradaren ondoan Jokin Eizmendi harrijasotzailearen erakustaldia, nibel handiko aizkolariak edota Olatz Salvadorren kontzertua elizan (igandean 23.00etan), besteak beste. Olatz Salvadorren kontzerturako sarrerak salgai dira dagoeneko (aldez aurretik erositakoek 12 euro balio dute eta egunean bertan 15 euro) izendatutako puntuetan (Itziarren Gure-Dendan eta Burugorri Ostatuan, Deban Arkatza dendan eta Zumaian Trapaia tabernan).

Era berean, herri-bazkariko txartelak ere eskuragarri daude Gure-Dendan eta Burugorri Ostatuan abuztuaren 6a bitartean (helduak 15 euros eta umeak 8 euro). Itziar Trail lasterketan parte hartzeko azken aukera gaur gauean 23:59ean amaitzen da. 13,9 kilometroko lasterketa da eta izen ematea kirolprobak webgunean egin behar da.

Kopraixetan hain bertakoak diren bigantxa eta zezenei dagokienez Itziarko Auzo Udala eratu zenetik, bertako ganadutegiekin festetan txandaka lan egitea adostu zen. Horrela, Leizarrango zezenak izango ditugu aurten.

Gainontzeko berrikuntzen artean, azken urteotako aldakuntzen ondotik aurten ere gradak hobetu egin dira horrela plazako aktuazio eta aurkezpenei garrantzi gehiago emanez. Era berean, festetan pilatzen den zaborraz kezkatuta, antolakuntzatik «modu egokian sailkatu, ez bota zakarrik lurrera... edalontzi berrerabilgarriak erabili, txosnan eskuratu daitezke edo etxean dauzkagunak berrerabili», esan dute.

Bihar jai giroa prestatzen hasiko da. 19.00etatik aurrera bertso pilota finala ospatuko da.

### Bazkari herrikoia

Deba-Reus topaketa abuztuak 13an ospatuko da. Egun horretan bazkari herrikoia antolatu da. Menua hauxe izango da: paella, sagardoa, ura, ardoa, postrea eta patxarana. Gaur eta bihar 15 euroren truke tiketak salgai egongo dira plaza berrian 19:00etatik 21:00etara.

### LARUNBATEKO EGITARAUA

▶ **Abuztuak 6, larunbata.**
11:00 Umeen pelota partiduak
16:00 V. Itziar Trail
16:15 Haurrentzako Crossa
18:30 Kalejira Joselontxo's txarangarekin
19:00 Txupinazoa eta Marixiren jeitsiera
Ondoren, danborrada
23:30 Akerbeltz taldea

MENDARO

# Inspecciones para hacer un seguimiento de los residuos depositados en el exterior

## Se han abierto cuatro expedientes sancionadores entre octubre de 2021 y febrero de 2022



Basura en las calles. A.Z.

AMAGOIA ZABALA

MENDARO. En respuesta a la preocupación ciudadana por los residuos que se acumulan en algunos puntos de los alrededores de los contenedores, la Mancomunidad ha intensificado las inspecciones desde el pasado mes de febrero y ha comenzado a tomar medidas Las inspecciones se han llevado a cabo principalmente en Ermua y Eibar, ya que es en estas dos localidades de nuestra comarca en donde se ha detectado el problema de las personas que depositan los residuos fuera de los contenedores.

### Expedientes y atestados

En base a la ordenanza de recogida de residuos de la Mancomunidad, atendiendo a las inquietudes y quejas de la ciudadanía, y siguiendo los atestados elaborados por la policía municipal, se han abierto cuatro expedientes sancionadores entre octubre de 2021 y febrero de 2022.

Desde que la Mancomunidad anunció que iba a empezar a tomar medidas ante estas conductas erróneas, la policía municipal ha elaborado un atestado.

SORALUZE

# Soraluze, conectada por autobús en agosto

NEREA ISASTI

SORALUZE. Los placentinos que se quedan en Soraluze en agosto cuentan con diversos servicios de autobús que le conectan tanto con los municipios limítrofes como con la costa. Así, en agosto habrá 25 servicios diarios a Eibar, el primero de los cuales pasará a las 06.40 y los siguientes a las 07.25 y 8.30. El último, a las 23.50. El fin de semana los servicios son algo más reducidos.

### Ondarroa y Donostia

La línea Soraluze-Ondarroa (Soraluze-Elgoibar-Mendaro-Deba-Mutriku-Ondarroa) cuenta con seis servicios diarios de lunes a viernes: 09.40; 11.40; 13.40; 16.40; 18.40 y 20.40. Los sábados, domingos y festivos: 10.40; 12.40; 16.40; 18.40 y 20.40.

Ocho son los servicios diarios a Donostia de lunes a viernes: 6.30; 8.25; 10.55; 13.55; 18.55; 20.55; 21.55 y 22.55. Los sábados el primero es a las 06.55 y el siguiente a las 10.55. Los domingos el primero es a las 09.00, el siguiente a las 13.00 y el siguiente a las 17.00.

Por último, Lurraldebus recuerda que no es necesario imprimir los billetes adquiridos por internet y se puede usar el billete electrónico.

ERMUA

# La OTA, fuera de servicio en agosto

K. ITURRIAGAGOITIA

ERMUA. El servicio de aparcamiento rotatorio regulado de nuestra localidad estará fuera de servicio hasta el jueves 1 de septiembre, ya que agosto es mes inhábil, tal y como se recoge en la ordenanza que regula este sistema. Por lo tanto, el estacionamiento en la zona OTA es libre durante este mes. Ermua cuenta con 48 aparcamientos para uso rotativo.